# “Parte hartze kultura eta garapen komunitarioa sustatzen, eskola eta herria denontzako izan daitezen”

Inklusioaren bidetik guztien ahotsekin eskola berrituz

ZEHAR-HAZITEGI IKERTALDEAK (HUHEZI-MU)

# San Martin herri eskolako

## trantsizioa guztion ahotsetatik

2019 ikasturte amaiera eta 2020ko hasiera

# AURKEZPENAREN HELBURUA

2019ko ekainean hasitako datu bilketatik eratorritako irakurketa eta ondorioak partekatzea

# Ikerketaren markoa

**Hezkuntza trantsizioak**

**Testuinguru batetik bestera ikasleek bizi dituzten aldaketa une kritikoak** (Sebastián, 2015)

- Ikasleengan inpaktu handia duten momentuak
- Ikasle orok bizi beharrekoak

Ikasleen ikaste prozesuetan eta garapenean **aukera** edo **oztopo** izan daitezke (Azorín, 2019)

*Arrisku egoeran dauden ikasleen desberdintasunak areagotu

Eskola porrota eragin dezakete

(Monarca, Rappoport eta Sandoval, 2013)

# Ikerketaren markoa

Inklusioa

**Parte hartzeko eta ikaste-irakasteko prozesuetako <u>oztopoak</u>**

- Ikasle guztiei kalitatezko erantzuna emateko
- Edozein motatako bazterketak murrizteko

*Etengabe berreraikitzen ari den prozesua da testuinguruak etengabe aldatzen direlako.*

Kultura, politika eta praktiketan
(Booth eta Ainscow, 2015)

Eskola garaian zehar aldaketa asko, esanguratsuenak etapa aldaketetan

# Ikerketaren markoa

HH- LH ETAPA TRANTSIZIOA

- **Kritikoena**

  - Eragina hurrengo ikasturteetan
  - Umearen garapen sozio - emozionalean

Familia eta irakasleen artean **ikuspegi erabat desberdinak** garrantziaren inguruan

↓

Hezkuntza - trantsizioko programak sortzeko beharra, ikastetxe bakoitzera egokituta.

# Ikerketaren markoa

LHko
ZIKLOEN
ARTEKO
TRANTSIZIOA

**Trantsizioa:** prozesu konstantea eta funtsezkoa hezkuntzan

↓

hezkuntza bera trantsizioa da

Testuinguruak etengabe aldatzen dira

↘

araututako aldaketetara mugatzea ez da nahikoa

# Ikerketaren markoa

LH- DBH
ETAPA
TRANTSIZIOA

- **Nerabezaroan ematen diren aldaketak**, identitate-eraikuntzako aldi bat da

↓

Antsietate prozesuak

↓

Gaztearen autoestima eta motibazio akademikoan

(Jindal - Snape eta Miller, 2008).

- Familia eta irakasleen artean **ikuspegi erabat desberdinak** garrantziaren inguruan

↓

Hezkuntza - trantsizioko programak sortzeko beharra, ikastetxe bakoitzera egokituta.

# Ikerketa metodologia

- Ikerketa Ekintza Parte hartzailea - ikerketa inklusiboa
  - Ikerketa kokatua eta eraldaketara bideratuta
  - Implikatuta dauden guztioen partaidetza
  - Unibertsitate eta eskolaren arteko harremana aldatzea

# KOKAPENA

Proiektuaren helburua:

Komunitateko kide guztien ahotsak jasota trantsizio prozesuak hobetzeko pausuak ematea.

Aurkezten ditugun datu eta ondorioek etapa eta zikloen trantsizioari erreferentzia egiten badiete ere, trantsizioa hori baino gehiago da: pertsonok testuinguru batetik bestera egiten ditugun igarobideetan ematen diren prozesuak.

# EMANDAKO URRATSAK

Datu bilketa:

| 2019ko maiatza-ekaina: trantsizio aurrekoa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Guraso | Ikasle | irakasle |
| HH 5 | Kopuru erreala | 40 | 40 | 2 |
| | **Parte hartu dute** | **9** | **36** | **2** |
| LH 2 | Kopuru erreala | 40 | 40 | 2 |
| | **Parte hartu dute** | **4** | **38** | **2** |
| LH 4 | Kopuru erreala | 65 | 65 | 3 |
| | **Parte hartu dute** | **6** | **61** | **3** |
| LH 6 | Kopuru erreala | 62 | 62 | 3 |
| | **Parte hartu dute** | **13** | **60** | **3** |

| 2019ko urria eta 2020ko urtarrila: trantsizio ondorengo/bitarteko | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Guraso | Ikasle | irakasle |
| LH 1 | Kopuru erreala | 40 | 40 | 2 |
| | **Parte hartu dute** | **5** | **37** | **2** |
| LH 3 | Kopuru erreala | 40 | 40 | 2 |
| | **Parte hartu dute** | **14** | **39** | **1** |
| LH 5 | Kopuru erreala | 65 | 65 | 3 |
| | **Parte hartu dute** | **4** | **62** | **3** |
| LAGUNTZA TALDEA | **2 laguntza irakasle, aholkularia eta entzumena eta mintzairako profesionala** | | | **3** |
| DBH 1 | Kopuru erreala | 110 | 110 | 5 |
| | **Parte hartu dute** | **74** | **105** | **4** |
| LAGUNTZA TALDEA | **Laguntza irakaslea eta orientatzailea** | | | **2** |

# Teknikak

- Ahotsak gelan bertan jaso dira teknika desberinak erabiliz
- Baimena eskatu zaie

**ikasleekin**



- Galdetegi bidez. Paperean LHn eta Paper eta onlinerako aukera DBH

**gurasoekin**



- Banakako elkarrizketak burutu dira, trantsizio aurretik tutoreei eta trantsizio ondoren tutore + laguntza taldeko kideei

**Irakasleekin**



## Emaitzak

Datuen emaitzak aztertzeko jasotako ahotsak aztertzen joan gara trantsizio garai, agente eta momentuen arabera eta horietatik orokortasunetara joan gara.

# ONDORIO OROKORRAK

Orokorrean eta trantsizio guztietan haurrek konfiantza dute beraien buruengan, jarrera baikorra eta ilusio eta interesa ere agertzen dira; gurasoek ere moldatuko direlakoan daude eta irakasleek ere orokorrean egingo dutelakoan daude umeak aldaketetara ohituta daudelako

# Hala ere, badaude AZTERKETA ELEMENTUAK

kezkak

**harremana:**

- Taldekide berriak eta irakasle berriak nortzuk izango diren da kezka nagusiena guraso eta ikasleen partetik.
- Trantsizio ondoren gurasoen partetik haurrekiko egin behar den egokitzapenean dago (graduala izatea, haurrengan izan beharreko begirunean arreta jarriz eta informazio komunikazioan oinarrituz

**Bizikidetza:**

- LH4-5en bizikidetza da kezka iturri (eragile guztiek egin diote erreferentzia gai honi)
- Gelako giroan eragiteko esku-hartze planifikatuak daude eskolan, baina, hobekuntza marjena dagoela aipatzen da kolektibo guztietan.

# Hala ere, badaude AZTERKETA ELEMENTUAK

kezkak

**Alderdi akademikoa:**

- Ume eta gurasoen kezkak etapako planteamenduaren arabera desberdintzen dira, baina, jolas gutxiago, lan gehiago eta zailagoa eta etxeko lanak aipatzen dira.
- Irakasleen kezka gehienak arlo honetan daude. Alde batetik, haurren gaitasunetan zentratutako kezkak, bestetik, familien kolaborazioan. LHko lehen zikloan eta bigarrenean irakurketa idazketa prozesuen garapena da kezka iturri nagusia.
- Umeen heldutasuna trantsiziorako gako moduan planteatzen da HH eta LH lehenengo maileran. Egiten den trantsizioa ez da nahikotzat jotzen eta kezka sortzen du. Irakasleak saiatzen dira aurreko estrategia batzuk mantentzen baina ez da nahikoa.
- Etapen arteko trantsizioetan DBHrako aldaketan batez ere metodologikoki aldaketa handia dagoela azpimarratzen dute ikasle eta gurasoek.

ematen den informazioa eta eragileen arteko koordinazioa

**Informazioa:**
jasotako edo emandako informazioa modu ezberdinetan baloratzen da: orokorrean irakasleei nahikotzat iruditu arren gurasoek eta haurrek ez dute horrela ikusten.

HHtik LHrako trantsizioan berriz, irakasleek ere informazio gehiago eman beharko litzatekeela adierazi dute.

**Koordinazioa:**
Irakasleek ez dute nahikotzat jotzen gurasoen inplikazioa, eta indartzeko beharra ikusten dute. Gurasoengandik, ordea, partehartzeko eta inplikatzeko gogoa jaso da.

Trantsizioa leuntzeko irakasleen arteko koordinazioa hobetzeko beharra antzeman da, mailen artekoa bereziki.

Irakasleen partetik, ezarritako erritmora egokitzeko zailtasunak dituzten umeak aipatzen dira. Familiekin lantzeko errefortzu erako jarduerak antolatzen dituzte eta familien erantzuna egoeraren arabera desberdina da(egoera ekonomiko zein linguistikoa baldintzatzailea).

zailtasunak

irudikapenak

**Ikasleak**
interesgarria, polita eta dibertigarria izatea nahi dute. Lehenengo mailetan jolasak presentzia gehiago izatea. Bigarren ziklotik hirugarrenera pasatzerakoan mezu negatiboak gehitzen dira: pozik eta gogotsu joatetik joan nahi ez izan edo leku aspergarri eta derrigortuata daudela sentitzera. DBHn beraien ahotsa gehiago entzutea nahiko luketela aipatu dute.

**gurasoek eta irakasleek**

prozesuaren erdian ikaslea jartzea eskatzen dute eta modu prograsibo eta gradual batean egitea trantsizioa. Aldaketa akademikoa erregulatzeko aukera egotea (alderdi hau trantsizio momentu desberdinetan azaltzen da eragile desberdinek aipatuta, baina, azpimarratzekoa da LH6 - DBHko trantsizioan eragile guztiek aipatzen dutela.

irudikapenak

**Gurasoek**
Prozesuan jarri dute arreta: graduala, haurrengan izan beharreko begirunean arreta jarriz eta informazio komunikazioan oinarrituz.

**Irakasleek**
koordinazioa: etapen arteko hartu emanak indartu. Beharrezkotzat ikusten da lehenengo mailetan ia aldaketarik ez egite lehenengo urtean, gurasoak eramatea ikasturtea hasi aurretik eta etapen artean ezagutza gehiago izatea.
Ikasturte hasieran garatzen den proiektu espezifikoa ikasturtean zehar mantentzea elkarbizitza lantzeko.

# PROPOSAMENAK

PROPOSAMEN EZBERDINAK JASO DIRA, OROKORREAN, EREMU HAUETAN KOKATZEN DIRA.

| | | |
|---|---|---|
| 01 | TRANTSIZIO PROZESUA PRESTATZE ALDERA | Egiten dena aztertu eta aurrera begira gogoeta egin |
| 02 | TRANTSIZIOA GAUZATZEN ARI GAREN BITARTEAN | Haurrei zein gurasoei zein laguntza mota eskaini ahal zaien irudikatu. |
| 03 | UMEEN ERRITMOA, HELDUTASUNA, AUTONOMIA, INTERESA...KEZKA ITURRI DA | Prest daude umeak ematen diegun esperientzia arrakastaz lortzeko? |

# ANTOLAKETA

## TALDE ERAGILEA

- Bolondresak (haurrak, gurasoak, irakasleak) eta ikertzaileak
- Anitza (eragileak, organoak, generoak, interesak,..)
- Diagnostiko partekatu batetik abiatuta, ekimenen bultzatzaile, antolatzaile (ekintza plana) eta ebaluatzaile
- Partaidetzaren (ahots guztiak) eta horizontalitatearen bermatzaile
- Prozesuaren komunikatzaile
- Aldikotasuna: hamabostean behin

## JARRAIPEN TALDEA

- Herriko zein eskolako eragile ezberdinetako ordezkariak, talde eragilekoak eta ikertzaileak
- Anitza (eragileak, organoak, generoak, interesak,..)
- Prozesuaren jarraipena
- Prozesuaren erraztailea
- Aldikotasuna: bi-hiru hilabetetik behin

# *“Parte hartze kultura eta garapen komunitarioa sustatzen, eskola eta herria denontzako izan daitezen”*

Inklusioaren bidetik guztien ahotsekin
eskola berrituz

ZEHAR-HAZITEGI IKERTALDEAK (HUHEZI-MU)